

Aiora Jauregi Pagalda

D maila • **Aipamena**

Kaixo!

Aiora Jauregi naiz, 13 urteko neska ataundarra. 2021eko irailean, Beasaingo Loinazpe ikastetxean hasi nintzen, DBHko lehen maila egiten eta gaur egun, bertan nabil. Ordurarte, Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolan eman nituen nire lehen pausoak.

Nire denbora librean, lagunekin egoteaz gain, izugarri gustatzen zait marraztea eta eskulanak egitea. Duela gutxirarte, bertsotan jarduten nuen, baina hori alde batera utzita, idazteari ekin nion.



GANBARAKO SOINUAK

Gau hartan, nire logelako leihotik begira nengoen, izarrez beteriko zeru ilunaren azpian. Nire ohean etzanik, loak hartu ezinik, amets berrien esperoan. Oraindik, gogoan dut herensuge handi batek oso-osorik irensten ninduen amets gaizto batek esnatu ninduela. Une hartan, oso mantso igarotzen ziren segundoak, minutuak... Eta nire begiek ez zuten kliskatzen. Isiltasuna zen nabari nire logelan. Isiltasun sakon hartan, bat-batean, zerbait entzun nuen, ez nekien zer zen, ezta nondik zetorren ere. Geldi-geldik gelditu nintzen, ahalik eta soinu gutxien ateraz, ahalik eta hobekien entzuteko soinu hura. Soinua ganbaratik zetorrela iruditu zitzaidan. Mamu bat izango ote zen? Bai zera! Mamuak pelikuletan bakarrik existitzen dira. Beldurrez ikaratuta nengoen eta ezin nion urduritasunari eutsi.

Lasai-lasai eta soinurik atera gabe joan behar nuen, nire amak ezer sumatu ez zezan. Ohetik altxa nintzen eta astiro-astiro nire logelako atea ireki nuen. Nire etxeko zorua egur zaharrez beterik zegoenez, kontu handiz ibili behar nuen ea zein egur zapaltzen nuen, zeren usteldutako egur bat zapalduz gero, ikaragarritzko soinua atera eta amak akabatuko ninduen. Ganbarara joateko, korridore ilun eta estu bat igaro behar nuen. Handik pasatzen nintzen bakoitzero, sorgin gaizto batek bere edabe pozoitsura botatzen ninduela pentsatzen nuen. Lehenengo aldia zen korridore hura bakarrik igarotzen nuela; besteetan, beldurrak jota, amak laguntzen zidan. Korridoretik, ganbarako ate herdoildua ikusten nuen. Une hartan, nire ohetik entzun nuen soinua aditu nuen, baina oraingoan, garbiagoa zen eta ozenago entzuten zen.

Ganbarako atea zabaldu nuen eta sartu bezain pronto, luma batzuk ikusi nituen. Egia esan, ez nituen ikusi, oso ilun baitzegoen, sentitu egin nituen nire oinazpian. Iluntasunean barrena aurrerantz jarraitu nuen eta bonbila txiki bat piztu nuen. Ganbarako leihorantz begiratzean, hegazti baten itzala ikusi nuen, urubitxo bat zegoen! Urubia marroia eta zuria zen eta hura ikusi orduko, listua erori zitzaidan ahotik. Hain zen polita! Urubi gaixoa uluka zebilen, gosez egongo zen. Bere albora inguratzean, hegoa apurtuta zuela ohartu nintzen. Urubiak ezin zuen hegan egin eta gainera, bizilekurik gabe zegoen.

PROSA

Urubiari janari pixka bat eman eta ohera bueltatu nintzen, amets berriak eraikitzen. Nire ganbaran urubi bat zegoela sekretu sakratu bat zen, ezin nion inori kontatu. Nire amak honen berri izango balu, honezkero urubia baso erdian zegoen abandonaturik. Nire amari ez zaizkio animaliak batere gustatzen eta basatiak baldin badira, oraindik eta gutxiago.

Astebete igaro zen urubia bilatu nuenetik. Oso ondo moldatzen ginen elkarren artean; nik jaten ematen nion eta berak maitasuna ematen zidan. Bikote bikaina osatzen genuen bien artean. Dena ederki zihoan, goiz batean nire amaren oihuekin esnatu nintzen arte:

- Sua! Sua! - Oihukatu zuen amak. - Atera etxetik sutan kixkali baino lehen!

Une hartan, ez nekien zer egin, korrika batean atera nintzen etxetik ero moduan, ezer pentsatu gabe. Nire etxeko lorategian nengoen, sukaldeko leihora begira, kea nola ateratzen zen ikusten. Bat-batean, urubiaren irudia etorri zitzaidan burura. Urubia ganbaran zegoen, sutan kixkaliko zen! Ahalik eta azkarren bere bila joan behar nuen ganbarara. Amak ez zidan utzi etxera sartzen, baina den-dena kontatu nion. Mundua gainera erori zitzaion amari eta bera konturatu gabe, ganbarara sartu nintzen. Hura beroa zegoena etxe hartan! Ganbarara iristean, urubia ez zegoela konturatu nintzen. Horrek munduaren amaiera ematen zuen, etxea sutan zegoen, urubia galduta... Negarrez atera nintzen etxetik. Korrika batean, basorantz abiatu nintzen urubiaren bila.

Basoan barrena nindoan, urubiaren bila, txistu eginez, alde batetik bestera bazter guztiak miatuz. Baina alferrik, urubia ez zen agertzen. Etsita nengoen, ezin nuen gehiago. Inguru hartan zegoen iturri batera joan nintzen eta aurpegia ur freskoz busti nuen. Gertaturikoa hausnartzen ari nintzen, nire buruak eztanda egin baino lehen. Tupustean, alboko baserriko aitona agertu zen:

- Ondo al zaude neskata? - Jakin nahi izan zuen agureak.

- Bai. - Erantzun nion negar-zotinka.

- Ez duzu ba itxura onik. - Esan zidan agureak. Itxuraz, bazuen zerbaiten berri.

Momentu hartan agureak aurrerantz jarraitu zuen oinez eta ni, iturrian gelditu nintzen pausatuta nire buruari bueltak ematen etengabe. Isiltasun sakona sortu zen. Agureari begira nengoen eta bat-batean, agureak buelta erdia eman, eta niregana jo zuen berriz:

- Zer gertatzen zaizu? Kontaidazu, konfiantza izan nigan, ez diot inori esango.

Ez nuen beste erremediorik eta den-dena kontatu nion agureari. Hasiera batean, lotsatuta nengoen, baina berehalaxe jabetu nintzen aitona hura laguntzeko prest zegoela eta laguntza eskainiko zidala. Gertatutakoaren berri eman nion agureari eta ez zen igaro ezta segundo bat ere zerbait esan zuenerako:

- Ulertzen zaitut neskato, ni ere egoera horretan egon izan naiz denbora luzez. Entzun iezadazu arretaz. Orain dela urte asko, agian izango dira berrogeita hamar bat urte, inguru eta bazter guzti hauek zuhaitz garai eta handiz inguratuta zeuden. Garai hartan, ohikoa zen txorien eta urubien kantuez josita bizitzea eta gauetan, urubien kantuak entzuten nituen nire logelatik...

PROSA

- Hortaz, urubien inguruan zer bait badakizu, ezta hala?- Galdetu nion.
- Bai. Gaur egun, beraien bizilekuak suntsitzen ari direnez, urubiak baso honen beste aldean elkartzen dira, agian bertan egon daiteke zure urubitxoak. - Antza, agure hori ez zen batere ergela, jakinduria oso zabala zuen.

Agurearekin batera, kontu-kontari, basoaren beste aldera joan nintzen. Bazter guztietan begiratzeko hasi nintzen eta hara non, zuhaitz baten azpian, nire ganbarako urubia aurkitu nuen. Hura poza sentitu nuena hartan! Momentu horretan nire emozioak dantzan zebiltzan, erabat nahasirik. Alde batetik, poza, bestetik tristura... Urubiak ere ezagutu ninduen, aurpegia erabat aldatu zitzaion ni ikustean. Ezin nion negarrari eutsi. Baina lasai, ez ziren tristurak eragindako malkoak, poza eta emozioarenak baizik. Urubia esku artean hartu nuen eta nire indar guztiarekin besarkada bat eman nion. Agureari eskerrak eman nizkion, bera gabe ez baitzen posible izango hau dena. Une hartan, agurea urubiari begira gelditu zen, harrituta:

- Hara! Hegoa apurtuta du urubiak...
- Bai, nire etxeko ganbaran azaldu zenean, horrelaxe aurkitu nuen, zauriturik. - Erantzun nion.
- Ba, ni gaztea nintzenean, aterpetxe batean lan egiten egon nintzen denbora luzez. Bertan, basoan zaurituta aurkitzen genituen animaliak artatu eta sendatzen genituen. Animaliak sendatzen zirenean, basora eramaten genituen eta bertan, libre uzten genituen, euren kasa bizitzen. Orain berriz, jubilatuta nago baina bolondres bezala aritzen naiz alboko herriko aterpetxean lanean.
- Orduan, joan gaitezke aterpetxera? - Galdetu nion agureari, gogo biziz.
- Noski baietz!

Urubia nire eskuetan hartu nuen eta agurearekin batera, aterpetxera joan nintzen. Aterpetxean, harrera onez hartu gintuzten eta pilo bat ikasi nuen beraiekin. Urubia pare bat asteetan guztiz sendatu zen, hegoa ondo jarri zioten eta basora eraman genuen. Ezin nion negar malkoari eutsi, elkarrekin lotura berezi bat geneukan. Baina azkenean, aske utzi genuen, bere bizitzaz gozatu zezan. Azken finean, horixe bera zen berarentzat egokiena.

Aterpetxeko langileak asko lagundu zidaten momentu zailetan. Oso jatorrak ziren eta ordutik aurrera, astebururo, agurearekin batera, bertara joaten nintzen animalia zaurituak zaindu eta sendatzera.

Orain, gauetan, nire logelako leihotik begira nagoenean, urubiarengan pentsatzen dut, abentura guzti hau horrelako gau batean hasi baitzen. Leihoa irekitzen dut eta urubiari txistu egiten diot. Urubia edonon dagoela, badakit nire txistua entzungo duela eta bisitan etorriko dela.

Urteak pasa ahala, pixkanaka-pixkanaka ohartzen joan naiz zein garrantzitsua den inguruko ekosisteman bizi diren animaliak zaintzea. Gehienetan, zer bait edo norbait galtzean ohartzen gara beraien balioaz, baina orduan jada berandu izaten da. Salba ditzagun inguruko urubiak berandu izan baino lehen!